

MUNDUKO EGUZKI-USTIATEGI FLOTATZAILERIK HANDIENA

Posted on 25/03/2016 by Naider



ustiategirik handiena munduko eguzki-zentral flotatzailea

martxan jarri da martxo honetan. Queen Elizabeth II ur-biltegian dago, Londresko Heathrow aireportutik gertu, eta bere 23.000 eguzki plakek zortzi futbol zelairen (urtegiaren % 6) baliokide den azalera hartzen dute. Bost urtez plangintzan egon zen eta sei milioi liberako (7,6 milioi euroko inbertsioa) behar izan duen baratza flotatzaileak urtegiak zerbitzatzen dituen araztegiei energia emango die hurrengo

hamarkadetan . Sortutako energiak Londresko ia hamar milioi pertsonen etxeetara ura ekartzen lagunduko du

Proiektuaren sustatzaileek ziurtatzen dute instalazioak ez duela eragin kaltegarririk izango biofaunari, eta, gainera, uraren gainean egonik, panelek eta kableatuek ezin hobeto funtzionatzen dute elementu likidoaren tenplaketaren eraginez.

Londresek ez du luzaroan izango munduko eguzki-ustategi handienaren errekorra: antzeko instalazio bat, baina eremuaren bikoitza, [Japonian eraikitzen ari dira](#), 2018an amaitzea aurreikusita.

There are no comments yet.